

## OSASUN-PROTOKOLOAK LABORANTZAN

# Handientzat merkatua, ttipientzat trauma...

Dermatosi nodular kutsakorrek du orain lekuko laborantzaren sektorea inarosten. Iazko ekainean lehen kasuak agertu ziren Italian, zehazki Sardinian eta Lombardian, eta hortik gutira, Frantziako Estatuan, Savoia eskualdean. Zabalpena geldiarazteko, osasun-protokolo drastikoa jarri zuten berehala martxan; hegazti gripea zein tuberkulosia, azken garaietan errepikatzen den logika

berari segi: kasu bat agertuz gero, tropa osoa hil eta inguruetako kabala guziak barneetara sartu. Aitzineko izurriteetan beraien kabalak hil behar izana ezagutu dute Julen Perez ahate ekoizleak eta Sophie Sicre behi hazleak. Beraien amesgaiztoa kontatu diote ARGIAri. Bizitutako zentzugabekeria horren parean desobeditzearen beharra eta zilegitasuna fermuki defenditzen dituzte.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**M**ilaka kabala barne batean metaturik, ahal bezain laster eta merke salmentarako pisura helarazi eta kamioikadaka hiltegitara bidaltzen dituztenei segur aski ez zaie hain eskandalagarria irudituko birusa kasatzeko harturiko osasun-neurri sorta. Finen, sal-eroste logika horretan traba bat agerturik, neurriak hartu behar izaten direlako azken hori desagerrarazi eta merkatuak bere ohiko dinamikan segitu ahal izateko. Baina, lurrarekiko eta kabalekiko maitasunez eta elikadura burujabetza helburu dabilzan laborariak ere badaude, eta horiek bestelako daukate sektorean gertatzen ari den sarraski horri buruzko soa. Birusa abelburu batean agerturik, tropako guziak –eri

izan ala ez– hiltzea, eta inguru zabaleko etxaldeetakoak aire librerara atera gabe atxikitzea? Hori ez dute onartzen, eta are gehiago, ez dute konprenitzen. Baina beraiei ere tokatu daiteke, osasun-protokolo bakarra delako, salbuespenik gabe guziei aplikatzen zaiena. 2022ko urtarrilean ahate tropa hilarazi behar izan zuen Julen Perezek, eta 2024ko urtarrilean jakin zuen Sophie Sicrek ere bere betalde osoa zuela hilarazi behar. Lehenak, ahate gripeagatik, eta bigarrenak, tuberkulosiagatik.

Lehena, Lohitzüne-Oihergi (Zuberoa) herrixkan instalatu zen laborari 2019an, Sabrina Larzabal lankidearekin, ahate hazkuntza egiteko. Hastapenetik hurbil ukan dute hegazti gripearen izurritearen

mamua: 2019 eta 2024 urteak izan ezik, beste urte guzietan. "Kriaxera lekuko ahate arraza dugu, kanpoko hazkuntzan gabiltza, ahate ttipiak lekuan lekukoak ditugu, guhaurrek egiten ditugu gure zerealak, guhaurrek gizentzen ditugu, gure hiltegia dugu... Ezin dugu erran birusa ez dugunik harrapatuko, baina segur gara ez digula garraiatzaile batek ekarriko eta sustut, segur gara ez dugula hedatuko". Baina hala eta guziz ere, eredu industrialean dabiltzanen segurtasun neurri berberak segitu beharrean dabil-tza, tartean, aire librean uztearen debekua. 2020ko izurritearen testuinguruan auzo batek salatu zituen, ez zituztelako ahateak barnean atxikitzen, eta orduan hasi zitzaien buruhaustea: osasun-zerbi-



SABINA HOURCADE

Dermatosi nodur kutsakorren kontrako protokoloaren kontra protestan dabilta laborariak, eta une berean EB-MERCOSUR hitzarmena ere salatzen dute. Argazkian, ELB, Modef eta Confederation Paysanne sindikatuak deituta, Baionako portua blokeatu zuten urtarrilaren 12an.

tzuen kontrola, zigor mehatxuak, administrazioak etxaldea hestearen beldurra... Ondoko neguan sartu zitzaizen birusa, eta test batean positibo emanik guziak hil zizkieten 2022ko urtarrilean. Hainbeste buruhauste eta gero, ez zuten nahiko indar beraien proposamenak eta kezkek entzuteko nahikeriarik ez zuen administrazioaren kontra borrokatzeko. "Istoriario honetan biktimak gara. Gu lanean ari gara nehoi kalterik egin gabe, baina, egun ikusten dugu ez dela posible: sail industrialak egunero mehatxatzen gaitu. (...) Kabala dentsitate handiak badira eremu ttipietan, eta Lohitzüne horren froga da. Laborari franko bada sail industrialean lanean ari dena. Haien etxaldeetan sartu da hegazti gripea, eta duten egituraketa-

“ ”

***Prest gara legez kanpo jartzeko, atentzioa gurera ekartzeko eta proposamenak bideratzeko ministeriora***

Julen Perez

ren ondorioz etxaldez etxalde iragan da, garraioak baliatzen baitituzte", zioen laborari gazteak amorraturik, berria jaso zuen egunean. Berehala deitu zuen manifestaziora ELB sindikatuak eta milaz gora lagunek zioten elkartasuna adierazi Donapaleuko (Nafarroa Beherea) karriketatik. Laborari ttipiak buru, hilketa masiboaren logikaren kontrako borroka eramaten du sindikatuak eta erreportajearen aitzinatu ahala, ikusiko dugu zer ekarri duen beraien tematze ederrak. Nolako den administrazioa, segurtasun neurriak ez betetzeagatik zigortu zituzten: legez kanpo izan zirelako, kalte-ordain gisa estatutuak eman beharreko 100.000 euroetatik 47.000 errezibitu zituzten bakarririk, eta departamenduak 10.000 euroetatik



ELB



Hegazi gripeari buruzko test batean positibo emanik, ahate guziak hil zizkieten Julen Perez eta Sabrina Larzabali (momentu hori dakar ezkerreko argazkiak). Egoera salatzeko eta kanpoko hazkuntzaren alde manifestazioa egin zuten ondoko egunetan Donapaleun (Nafarroa Beherea).

erdia bakarrik zien eman. Ez du beste hitzik: "Kabalarekiko lotura hori moztu beharra izugarriko bihozmina da, ezin onartuzkoa anitzentzat. (...) Dena galtzea, etxaldera sartu eta dena isil-isilik kausitzea izugarri gogorra da".

Sophie Sicre ere 2019an instalatu zen Ezpeize-Ündüreinen (Zuberoa), 2015ean laborantzan abiatutako senarraren etxaldean. Pirinioetako gaskoien behi arraza dute, Pirinioen zeharkaldian arraza hori deskubritu eta horiez maiteminduta, ordura arteko haragitarako beilegien tropa poliki-poliki ordezkaturik. Laborantza eta oihangintza uztartu eta 3.000 arbol eta landare landatuta, 50 kofoin ezarrita eta ahatxe, miga, behi eta zezen, guziak kontatuta 120 bat buruko tropa hurbiletik segituz, gustura zebiltzan baserrian, guziaren errespetuan eta sinbiosi ederrean. Baina beraiei ere sartu zitzairen baserrira sekulan irudikatuta ez zutena: 2024ko urtarrilaren 11n jakiten zuten tuberkulosiaren testan positibo eman zuela behi batek, eta urtarrilaren 18an jaso zuten amesgaiztoaren itzala: hilketa masiboa, bai ala bai, otsailaren 16ko prefetaren ordenantzak baieztatuko ziena. "Bat-batean mundu oso bat erortzen zaizu, urteetan eraiki izan duzun bizi-proiektua hankaz



“ ”

***Buldozer bat bada,  
agroindustria deitzen  
dena eta dena egina  
da honentzat, osasun-  
legeak barne***

Julen Perez

gora jartzen da". Mina, negarrak, galderak, lorik gabeko gauak, ez-ulertuak, kexua eta zurrunbiloaren artetik, une batean erabakia: "Ez ditugu utziko egiten, ez da egia behi batengatik tropa guzia hilen digutela". Desobeditzeak hemeretzi hilabeteko borroka luze eta dorpea zekarren, beti ere ELBren laguntzaz -funtsean, hastapenetik ondoan izan dute Perez bera, gomendio, laguntza eta sustengu emaile suhar gisa. Sindikatuak deituta, martxoaren 30ean 400 lagun hurbildu zitzaizkien etxaldera, behi saldoaren hilketa ez uzteko eta bes-telako protokolo bat galdatzeko. Hiltzerik ez zen gertatu eta elkartasunari esker lorturiko lehen garaipena zuten hori. Izanen zituzten ondotik ere beste batzuk, nahiz eta bidea izugarri mingarria eta akigarria izan, finean, iazko uztailan lortu zutelako protokolo esperimentala gauzatzeko baimena. "Arriskuak hartzen ditugu errefusatuz, etxaldea, familia-bizia, bikotea... guzia da zailtasunetan ezartzen".

### **BORROKATZEAREN BEHARRA**

"ELB ezagutzearekin, familia harrigarri bat ezagutu dugu. Beti gure ondoan ukan ditugu, ez gaituzte sekula bakarrik utzi: telefono deiak, argumentu-lanketa, ne-goiazio fasea, prefeturan bilkurak... ezin

irudikatua da zenbat ordu pasa dituzten guretzat. Gaueko hamarretan pasatzen zitzaizkigun etxera, garagardoekin, moralala igotzeko xedez. Biziki-biziki gogorra izan delako, pareta bat genuen aitzinean, estatua genuen aitzinean. Aldi berean, errespetu handia izan dute, ez digute sekula presiorik sartu, beti erran izan digute 'akitua bazarete, gelditu dezakezue prozesua, hor ukanen gaituzue berdin-berdin'. Erran bezala, hilketa masiboa errefusatzearaz gain, beste borroka bat hasten zutelako: protokolo esperimental bat lortzearena, hilketa orokorra baztertzeke helburuz. Bai berentzat, baita kasu berean izanen ziren ondokoentzat ere. Eta lortu, lortu zuten 2025eko uztailean. Behien gutiengoa salbatzen zuten, hau da, gehiengoa sakrifikatu behar izan zuten: uztailetik irailera aratxe guziak eta beste 27 -arriskuan omen ziren hamazazpi eta troparen berritzearentzat ez ziren hamar-; eta urrian, beste sei -testa bideraturiko 65etan positibo eman zutenak- eta azkenik, 59 gelditzen zitzaizkiela, horietarik hamaika hautatu behar izan zituzten hiltzeko. Finean, urtarrileko lehen hura salbu, hildako besteetarik bakar batek ere ez zuen eritasuna. Mina are mingarriago egiten duen emaitza, duda gabe, hildakoak osasuntsu zirelako, erabat sano. Zehaztu beharra dago testak errore tasa altua duela, eta hil ondoren argitzen dela benetan kutsatuta zegoen edo ez -kasu anitzetan osasuntsu agertzen dira, baina berantegi...

Gogorra izanik ere, kabalak etxetik zortzi kilometrotara duten Mauleko hiltzera beraiek eramateko hautua egina zuten: "Batzuek tratulari batekin eramaten dituzte, Castres edota Saint-Etienne bezalako Frantziako herrietara. Hori ez genuen nahi. Bost minutuko bidea izatea nahi genuen, bakean joatea nahi genuen eta hori argiki adierazi nahi genien". Argi eta garbi, trauma bat dela dio. Oraindik ere pairatzen dutena, nahiz eta poliki-poliki salbatu ahal izan dituztenekin aitzina egin, begirada geroari begira jarrita. "Philippentzat [bikotea] biziki-biziki gogorra izan da, ardiak gehitzeko hautua egin dugu, bizia berriz sentitu beharrean zelako. Alaba handienak hamahiru urte zituen garaian eta kolegiara joan aitzin, 05:30ean behitegian zen, behiak agurtzera joana, eta artzain izan nahi bazuen ere, gaur egun ezin du bere artaldearekin egon, traumatizatuta delako. Bigarren umea autista dugu eta ezin zuen gehiago suportatu etxean biltzen zen jendea. Ez ginen tuberkulosiaz mintzo apairu den-

boran, handienak ez zuelako gehiago suportatzen. Nik ere oraindik dut tristura handia, joareak behitegian ikustearekin adibidez. Ez, ez dugu sekula ahantziko bizitu izan duguna".

Gainera, osasun-zerbitzuko arduradunen jarrera okaztagarria zitzaieela ere kontatzen du: "Ulertzen gintuztela zioten, baina diskurtso faltsua zen hori, jarrera manipulazalea zeukaten, hilketa errefusatzuz gero eritasunaren hedapenaren errudun izanen ginela zioten, maltzurki jokatzun zuten. Horregatik ez gara inoiz bakarrik egon, biziki azkarrak direlako eta suntsitzeko gaitasuna dute-lako: behea jo dezakezu eta bakea erosteko betalde osoa hil. Hori nahi dute, zinez biziki-biziki gogorra da".



“ ”

**[Osasun-zerbitzukoak]  
biziki azkarrak dira,  
zure suntsitzeko  
gaitasuna dute:  
behea jo dezakezu  
eta bakea erosteko  
betalde osoa hil**

Sophie Sicre

### **DESOBEDIENTZIA: "MILITANTZIA DA ETA ZUZEN GABILTZA"**

"Guk ez dakigu dena, baina prest gara momentu batean legez kanpo jartzeko, justuki atentzioa gurera bideratzeko eta proposamen interesgarriak egiteko ministerioari. Hegazti gripearekin hori gertatu zen, tuberkulosiarekin berdin eta hori nahi dugu orain dermatosiarekin. Militantzia da eta zuzen gabiltza", dio Perezek. Hain zuzen, Sicre bikotea-

ren borroka protokolo esperimental bat ekarri duen bezala, hegazti gripearekin ere gauza bera gertatu zelako. Kriaxera eta rouen lekuko ahate arrazentzat lortu zuten bide-orri propio bat 2021ean, frogatu nahi zutelako birusa egonik ere, antigorputzak garatzen zituztela eta eritasunari gaina harturik sano gelditzen zirela. 2022 hondarrean ere abiatu zuten protokolo esperimental bat kanpoko hazkuntzan dabilzane bideraturikoa.

Gaurko egunean ahate gripea ez da desagertu -are gehiago, urte osoan presente den birusa ere bihurtu da, klima aldaketak dakartzan neguko tenperaturen epeltzeekin batik bat-. Urtez urte milioika hegazti hiltzeak ez du birusaren kasatzerik ekarri, ezta ekarriko ere. Gainera, indemnizazioak ekonomikoki kostu alimaleak ondorioztaturik, finean, txertatze kanpaina orokortuta dute orain (hori bai, hilketa masiboak hor segitzen du birusa agertuz gero hazkuntza batera). Urriaz geroztik kutsatze-arrisku maila gorenean izanda, hegaztiak barnean atxiki beharrean dabilta. Hori ere, ELBk, eta funtsean Perezek berak, errefusatzun duena: "Beldur gehiago badut bortxaz jartzun dizkiguten osasun-politikez ez eta birusaz", dio Perezek. Baina isunaren arriskua hartzen du, eta kanpoan dauzka ahateak, bestela ez duelako ikusten bere hazkuntza.

Dioenaz, osasun-krisien kudeaketa ere laborantza eredu zehatz baten mesederako idatzita du administrazioak: "Bulldozer bat bada, laborantza produktibista deiturikoa, eta dena da honentzat egina, osasun-legeak barne. Gure laborantza ereduarentzat, haatik, ez da osasun-protokolorik". Eta paradoxikoki, agroindustria da birusen hedatzaile. Eredu horietan dabilzanan "bonba sanitarioak" direla dio Perezek: dela, milaka animalia eremu hetsi batean atxikitzen dituztelako, dela, kabalen garraiatze luzeak ondorioztatzen dituztelako -prozesu guzia leku berean bideratu beharrean, hazkuntza espezializatuta izateak dakarrelako fase batetik bestera, lurralde batetik bestera mugitu behar izatea kabalak-. Alderantziz, Sicre, Perez, eta oro har ELB nahiko konbentziuak dira baieztatzeke eredu herrikoi eta iraunkorrean dabilzanan kanpoko hazkuntzek aurre egin diezaieketela birusei. Diotenez, kasuan kasu baserri bakoitzak duen kutsatze-arriskua neurtu beharko litzateke -"20 behi edo 300 ez delako arrisku bera", Perezen hitzetan- eta hortik, araberako protokolo eraginkor bat bideratu bakoitzari.

# ETA ORAIN ABEREEN TALDE IMMUNOLOGIA LORTU BEHAR DA... ZERGATIK EZ DA TALDE PREBENTZIOA LANTZEN?

 GOIURI ALBERDI ETA AINTZIRA OÑEDERRA | ASUNEK

EHKolektiboa abenduan eta urtarrilean gauzatzen ari den etxalde bisitei jarraiki iritsi gara Agerrea baserrira, esne behiak dituen Arbonako (Lapurdi) etxaldera. Kolektiboak definitutako irizpide agroekologikoak zein maneratan betetzen diren eza-gutzeko bisitak direnez, aukera interesgarria da laborarien egunerokoa gertutik ulertzeko. Bide batez, bertan jasotakoak EHKoren Onarpen Komisioak aztertzen ditu, identifikatzaileen erabilera egokia bermatzeko.

Jakin bagenekien abeltzainak kezka bateriko uneak bizitzen ari direla behiengan eragina duen dermatosi nodular kutsakorra (DNK) dela eta instituzioetatik hartzen ari diren erabakien ondorioz. Zer esanik ez, horri Mercosurreko akordioak izan ditzakeen eraginak erantsiz gero.

Iparraldean bereziki, hainbat mobilizazio izan dira, behin kasu positibo bat agertuz gero ezartzen den protokoloaren aurka: lehenik, eri den behia eta bere tropa guztia hiltzen dituzte, tokian bertan. Bigarrenik, 50 kilometroko perimetroan, beste abereak mugitzea eta garraiatzea debekatzen dute. Eta azkenik, eremuko behi guztiak txertatzen dituzte. Europako araudiaren arabera, gaixotasun honen prebentziozko txertaketa debekatuta badago ere, Frantziako Gobernuak abenduan hasi zen eritasunaren aurkako txertoak ezartzen, eta Gipuzkoan eta Nafarroan ere kabalak txertatzea derrigorrezkoa da. Txertaketa kanpaina masiboetan gertatzen den moduan, informazio faltak eta erabakiak bulegoetan hartzeak, mesfidantzaz betetzen ditu abeltzainak.

Agerrea etxaldean urteak daramatzate antzeko gaixotasunak prebenitzeko abeltzaintza ereduaz zaintzen. Etxaldean 25 behi dituzte, eta ekologikoan dihardutenek, hektarea bat dute behiko. Egunean jertzialdi bakarra egiten dute, eta esnea eraldatuta eta zuzeneko merkaturatze bideak erabilia, elikagaiei behar duten balio erantsia ematea lortzen dute. Abereen elikadura etxeko bazkan oinarritzen da, jaten dutenaren %3a soilik erosten da. Besteen artean, txahalak jaiotzean, etxean atxikitzeke izanen

direnak amarekin uzten dira, amaren esnea hartu dezaten, eta sistema immunologikoa indartu dezaten. Modu horretan, ez da inongo tratamendu edo artatze antiparasitarioarik aplikatu beharrik izaten. Beraz, etekin ekonomikoaren maximizazioaren gainetik dauden troparen tamaina egokiak eta gaixotasunak prebenitzeko praktika aiposek, abereen osasuna eta ongizatea bermatzen dituzte.

Zer pentsatua ematen digu Gaskoniako landa eskualde zingiratsuan ematen zen artzaintza eredu estentsiboak, artzainak zur-zangoetan ibiltzeagatik ezagunak egiten zaizkigunak. Lurraldearen zatirik handiena paduraz eta zingiraz osatuta zegoenez, laborantzako lur pobreak ziren eta artzaintzak bazuen eskualdean bere garrantzia. Herri-lurak izanik, komunitate bakoitzeko bizilagunek libreki erabiltzen zituzten, kolektiboki adostutako araudi batzuen baitan. Hala ere, artzaintzatik ateratzen zen baliabiderik baliotsuena ez zen ez esnea, haragia edota artilea, gehien baloratzen zen baliabidea simaurra zen, ezinbestekoa padura haien emankortasuna hobetzeko, zerealen eta barazkien ekoizpena, eta ondorioz, elikadura sistema ahalbidetzeko.

Honekin, lurralde bakoitzeko laborantza ereduak tokian tokiko baldintzetara guztiz egokitu behar duela esan asmo dugu. Etxaldean tamainak eta praktikek kokatzen diren ingurunean ematen diren dinamika ekologikoen baitakoak izan behar dute, eta manei hori izango da abereen gaixotasunak prebenitu eta ongizatea bermatzeko bidea.

Haatik, manei intentsiboan tematuta dauden abeltzainek sortzen dituzten baldintzek, abereei lotutako gaixotasun kutsakorrek libreki zabaltzea errazten dute, eta prebentzio lanak egiten dituzten abeltzainei ere zuzenean eragiten diete. Beraz, ez da konprenigarria suertatzen makroetxaldean eta eredu agroekologikoan dihardutenen arteko elkarbizitarik; talka behin eta berriz azaleratzen da.

## MERKATUAK AGINTZEN DUENEAN...

Hastapenetan ez bezala, ahate guziak txertatzeko erabakia harturik du estatuak, eta nazioarteko merkatuaren legedia ere egokitu dute, txertatuak izanda ere berdin-berdin saldu ahal izateko. Alta, iraganean, bide hori errefusatzeko administrazioak: "Txertoari buruz ez dute ezer entzun nahi, beste herrialde batzuetarako esportaziorik ezin izango litzatekeelako egin. (...) Interes ekonomikoek garrantzi handiagoa du haien begietan, interes sanitarioak baino. Guk, etxalde ttipiok, pisu ekonomiko ttipia

dugunez, gure existentziak bost axola die", zioen ELBko ordezkari batek izurrite-urte horietako mobilizazio batean.

Finean, izurritez izurrite, ikusten duguna zera da: birusa aldatu arren, guztia doa berdin-berdin. Dermatosiaren kasuan ere, hiltze masiboetan oinarrituta dago protokoloa; nazioarteko merkatua ez da galdu nahi, beraz txerto kanpaina orokorrik ez da bideratzen; eta laborariak dabilta borrokan bestelako osasun-protokolo baten alde. Berdin dio sintomak, kutsatze-bideak eta zabalpen zein hiltze tasak... Europako eritasunen sailkapenari begiratzen zaio eta merka-

tuan gelditu ahal izateko, "kalterik gabe" estatusa atxikitzeke eginahalak bideratzen dira urgentzian -ulertu, hilketa masiboak, hain justu, kutsatutakoak estatu-ko kabalen %0,1 baino gehiago izanez gero galtzen delako estatusa-.

## LABORARIAK PROTESTAN

Hori bai, dermatosia birusa agertu den eskualdeetan txerto kanpaina abian da, Ipar Euskal Herrian kasu. Bide blokeo eta bestelako ekintza, azken asteetan karrikan direlako laborariak eta mobilizazioaren lorpen gisa ikusi daiteke erabakia. Frantziako Estatu mailan lehen indarra



ELB

Tuberkulosi kasu bat agertu zen Sophie eta Philippe Sicre bikotearen betaldean 2024an. Behi guziak hiltzearen kontra eta bestelako osasun-protokolo baten aldeko borroka luze eta gogorra abiatzea erabaki zuten. Argazkian, behien hilketa geldiarazteko batu ziren etxaldera 400 lagun.

den FNSEA sindikatua nahiko isilik bada ere –finean, agroindustriaren defendatzailea delako–, bestelakoak protestan dira, laborantza herrikoiaaren sustatzaile Confederation Paysanne eta ELBtik hasi, sindikatu-karta gabekoetara eta eskuineko Coordination Rurale sindikatu gaztera arte. Sicrek, adibidez, txertatu ditu behiak: "Ni ez nintzen baitezpada horren aldekoa, baina Philippek [bere bikotea] lasaiago egoteko beharra zuen. Berehalakoan eta urgertzian ez genuen beste aterabiderik eta dena dela, ez ginin berriz borrokan sartzeko indarrarekin. Gelditzen zaizkigun horiek babesteko hautuz bideratu diegu txertoa eta ez gara dolutzen". Ipar Euskal Herrian ez da agertu eritasuna, baina hortik hurbil bai, abenduan Pirinio Garaietan. Izua nagusi da laborarien artean, baina seguruenik, Perezek dioenari segi, birusak baino gehiago tropa osoaren hilketa ekarriko lukeen protokoloak sorturikoa. Hori horrela, berehalakoan txertoa aterabide gisa ikusten dute antzetzek, nahiz eta gerora horretaz ere hausnartzeko beharra ikusi. Libre deituriko kolektiboa sortu dute laborari zenbaitek, txertatze masiboaren logika borrokatze-ko asmoz.

Hain justu, berez kabalek izan dezaketelako birusei gaina hartzeko gaitasuna, eta Sicrek, dioenez, hori ere badelako naturaren funtsa: "Birusak, bakteriak... biziaren printzipioa da hori ere, gizakiak ezin du dena kontrolatu, hori ere onartu

beharra dago. Hazkuntzan heriotzak gertatzen zaizkigu, hori horrela da, bizitzaren parte da". Gainera, birusaren izaera eta zabalpena ulertu nahi bada, kutsatuak tropatik baztertuta eta bakartuta, hurbitetik segitu beharko lirakeela diote, hori guzia aztertzeke eta ulertzeke gisan.

Osasunari begira baino, ekonomiari begira landutako protokolo bat dela diote mobilizaturik diren nekazariak. Bestela erranda, handiak nazioarteko merkatuan egon ahal izateko. Perez eta Sicre nahiko desesperatuta daude, ez dutelako ulertzen logika hori. Etxalde ttipien kalterako harturiko neurriak direla argi dute biek eta parekoaren buruan pasatzen dena ezin konprenituta dabilta aitzina. Perezek, etxalde ttipiak desagerrarazteko maniobra ere ikusten du osasun- eta segurtasun-protokolo horietan. "Eta ez naiz konspirazioaren teoriarik", gehitzen du berehala, irakurketa politikoa argitu aitzin: direla segurtasun neurriek dakartzaten obrak eta gastuak, dela tropa guzia hil beharra, dela administrazioaren inposaketa eta norberaren erabakitzeke ahalmen-eza, desesperatzeko badela dio eta hortik, lanbidea alde batera uzteko tira erreala dela.

Hori horrela da, eta Greenpeaceen ikerketa bat dugu horren lekuko: Frantziako Estatuari dagokionez, demagun, makroetxaldeak %107 emendatu dira 2007 eta 2022 artean, eta etxalde ttipien kopurua, berriz, %35 apaldu da. Tendentzia

orokorra da: 2005etik 2020ra Europako etxaldeak %37 desagertu da, zehazki, 5,3 milioi baserri. Eta horrela, batak bestea ondorioztatuta, ekuazioan sartzen zaigu merkatu librerako EB-MERCOSUR hitzarmenaren gaia ere: "Gure etxalde ttipiak desagertuz, agroindustriak lekua irabaziko du bai, baina ez da nahiko hazkurri ekoiztuko eta kanpotik inportatu beharko da". Hazkurriaz harago, bestelako onura inportante bat ikusten dio laborantzari Perezek: lurraldearekiko lotura. "Sistema produktibistak behar du ahal bezain errentagarria izan, eta horretarako handitzen dira etxaldeak, geroz eta gehiago deslotuz jendartetik eta lurraldetik. Bihar laborariak ez baldin badio gehiago deus ekartzen bere inguruari, desagertzen ahalko dira, jendarteak ez duelako gehiago estimatuko beraien funtzioa. Laborariak desagertuz gero, biderkatuko dira EB-MERCOSUR gisako hitzarmenak".

Egoera ez da erraza, eta injustizia handia sentitu dezake buru-belarri bere baserri ttipia aitzina eraman nahian dabilenak. Funtsean, ezinegon horrek eraman ditu bideen blokeatzera. Eta behar orduan, Perez eta Sicreren gisara, desobeditzera, arrisku handiak hartuz: arrisku handiak hartuz. Sicrek ondokoa argi utzi nahi du: "Bagenekien zintzoki ari ginela, ez dugu sekula osasun-zerbitzuen beldur ukan, beraien zigor mehatxuek ez gaituzte izutu, gurea bidezkoa eta zuzena zela argi genuelako". ●